

Langile Batzordean gauden sindikatuok, hau da, LABek, AFAPNAk, ELAk, CCOOk eta UGTk, mobilizazio egun honen deitzaileak garen aldetik, eskerrak eman dizkiegu hezkuntza-laguntzako espezialistei ikaragarritzko lana egin dutelako azaroaren 14ko greba hau arrakastatsua izan dadin. Orobat, hezkuntza-komunitateari, irakasleei, familiei eta familien elkarteei ere eskerrak eman nahi dizkiegu, espezialisten kolektiboari eta haien erreibindikazioei eman dieten babesagatik. Era berean, Hezkuntza Departamentuak ezarri dituen gutxieneko zerbitzuak salatu nahi ditugu, gehiegikeria bat izan delako. Izan ere, %100eko zerbitzuak ezarri ditu espezialista bakar bat dagoen tokietan; % 50ekoak bi espezialista badaude; eta hortik gora, formula bera aplikatu dute.

Salatu beharra dugu, halaber, gaur den egunean Hezkuntza Departamentuko eta Funtzio Publikoko ordezkariak ez direla harremanetan jarri ordezkaritza sindikalarekin: ez deialdiaren arrazoiak ezagutzeko, ez nolabaiteko elkarrizketa bat irekitzeko. Espero dezagun greba honen arrakastak balio izatea negoziazio mahai bat irekitzeko eta kolektibo honek dituen arazo nagusiei heltzeko; hori guztia, hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleei ematen zaien heziketaren kalitatea hobetzeko asmoz.

Honako hauek dira lehenbailehen jorratu beharko liratekeen gai nagusiak:

1. Ezinbestekoa da negoziazio mahai bat irekitzea Administrazioaren eta sindikatuen ordezkarien artean eta negoziazio prozesu baten egutegia prestatzea. Horri dagokionez, gogora dezagun, azkeneko mahaia Administrazioak utzi zuela bertan behera, bere erabakiz.
2. 2109/2012 Ebazpena indarrrik gabe uztea eta ordutegiei buruzko arau berri bat negoziatzea.
3. Administrazioak lan eskaintza publiko gehiago ateratzeko konpromisoa hartzea, hezkuntza-laguntzako espezialisten kolektiboaren behin-behinekotasun tasa % 8ra jaisteko, eta, horrela, Administrazioak berak adierazi dituen kopuruetara iristeko.
4. Lan kontratu duinak eskaintzea, langile horiek duintasunez bizi ahal izateko eta hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleekin egiten den esku-hartzea eta ematen zaien heziketaren kalitatea hobetzeko.
5. Zeharkako arreta, koordinazioa eta taldelana bultzatzea, betiere helburu nagusia izanik hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleen INKLUSIOA hezkuntza-komunitatean.
6. Prestakuntza plan bat negoziatzea eta aplikatzea, profesional horien esku-hartzearen izaera hezitzailea indartuko duena.
7. Lanbide honen ezaugarri espezifikoak jasoko dituen araudia negoziatzea.

Kontuan harturik **hezkuntza-inklusioa** Nafarroako hezkuntza-sistemaren helburu nagusietako bat dela, argi dugu hori lortzea ezinezkoa dela hezkuntza-laguntzako espezialisten parte-hartzea gabe. Benetako **INKLUSIOA** lortzeko baliabideak jartzen ez badira, argi eta garbi salatu behar da Departamentuak egiten duena PROPAGANDA hutsa besterik ez dela. Izan ere, une honetan, helburu hori oso urruti dago. Hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleekin lan egiten duen kolektibo honek lan baldintza prekarioak ditu, eta horrek asko baldintzatzen du egiten duten esku-hartzearen kalitatea. Gainera, hutsaren hurrengoak dira esku-hartze horren kalitatea bermatzeko

beharko liratekeen baliabideak (hau da, koordinazioa, saioen eta materialen prestaketa, talde-lana, prestakuntza eta abar).

**Gaur, azaroak 14, kontzentrazioak egingen ditugu Tuteran (Foruen Plazan) eta Iruñean (Hezkuntza Departamentuaren parean), goizeko 11:30etan. Arratsaldean, deialdi bakarra izanen da, Iruñean, 18:00etan, Diputazioaren parean.**